

Izenburua: Ez dut etsiko!

Egilea (goitizena): Eki

Gaia: Mari, 55 urteko emakume etorkina eta ama bakarra da. Bere seme txikia etxetik joan eta gero berak euskera ikasi nahi du, baina baldintza ekonomiko zailean dago horretarako.

Doinua: Ai gure aintzinako

1

Lana aurkitu eta
bai abagunea
hegan egin maitia
heldu da unea
gogoratu mesedez
gaur ingurunea
bihurtu bihotz hori
amaren gunea
ez dakit nola bete
zure hutsunea.

2

Bi umeren zainketa
gogorra bidea
ama bakarra izanda
zailago, ordea
inor gabe etxean
orain bai aldea
kudeatu beldurrak
gehi bakardadea
bizitzen berriz hasi
badut edadea.

3

Agur ta buelta eman
bidetik auzora
pentsakor ta kezkatu
ez galdu ganora
euskaltegi ondoan
begiratu gora
orain ondo ikasi
badut nik denbora
euskara jakin gabe
ez noa inora!

4

Laurogeita zazpian
Altzara iristean
erdara zen nagusi
plazan ta kalean
gauzak aldatu dira
zentzu on batean
benetako zirrara
hitzak entzutean
euskaldun nahi dut izan
modu apalean.

5

Idea burutzeko
nahi dudan astia
diruz ez nabil ondo
hau kezka larria
sosik gabe ikasi
erronka berria
dudan soldatarekin
esfortzu handia
nola ordainduko dut
ura ta argia?

6

Amonak esan zidan:
har ezazu hitza,
zure asmo guztiak
bihurtu ekintza.
Edonorentzat dena
aukera anitza
emakume batentzat
gogorra, bortitza
borroka feminista
da nire bizitza.